

Gure Herria

Antton Izagirre

Martxoaren 19rako Gure Esku Dago elkarteak bultzatuta Tolosaldean egin asmo den galdeketa hari-
ra, besteren artean Bernardo Atxagak hartu zuen parte mahai inguruan, galdeketa mota hauekiko bere ezkortasuna-
ren funtsa eman zuen aditzera eta, besteak
beste, “gu” eta “herri” kontzeptuen gaineko
eztabaida jarri zuen mahai gainean.

Atxagaren ustez, “gu” eta “herri” horiek ez
daude definituta eta funtsezkoa deritzo ze-
haztasun horri. Ez da hori beharbada galde-
keta honek duen eztabaida gairik larriena,
baina, tira, eztabaida politikoan ageri diren
jarrera desberdinak islatzen eta argitzen
hasteko balio lezake.

“Gu” eta “herri” kontzeptuak gizabanako-
ak zein gizatalde batek eraikitzen dituen

adimen irudiak dira. “Gu” kontzeptua “ni”
eta “besteak” kontzeptuei aurrejarrikeri-
kitzen dugu. “Herri” kontzeptua, aldiz, “gi-
zarte” kontzeptutik aldentzen da; hala, bere
konplexutasunean, komunitate baten kul-
tura eta ikusmolde mankomunatuak dituen
gizatalde jakin bati egiten dio erreferentzia.
Gure eguneroko dialektika politikoan ere,
kontzeptu desberdin horiek, beren baitan
baino, aurkaritza dinamikan eraikitzen dira.

Batetik, “gure esku dago” esaten dugune-
an, batzuek diogu, “gu” horrek, euskal herri-
tar ororen borondate libreari egiten diola
erreferentzia, euskal lurraldeetan bizi eta
lan egiten duten guztioi aitortzen zaigula
erabakitzeko eskubidea. Nolako herria izan,
nola antolatu eta gainerako herriei nola-
ko interdependentzian bizi nahi dugun era-

bakitzeko gaitasunaren aitortza egiten du-
gula. Beste batzuek, aldiz, “gu” horren bai-
tan Estatu espainiarreko eta Estatu frantse-
seko herritarren edota aginte politikoaren
borondatea barneratzen dute eta erabaki-
tzeko eskubidea haiek ezarriko duten muga
eta eredura baldintzatu eta makurrarazten
dute.

Hitz eta kontzeptuen gaineko hausnarke-
tak, ideien arteko eztabaidak eta dialektika-
duen garrantzia eta betebeharra baztertu
gabe, pentsamendu hutsetik ekintzetara
salto egiteak duen garrantziari balioa eman
behar diogu. Martxoaren 19an, estatu buru-
jabe bateko kide izan nahi dugun galdeke-
tan parte hartze hutsa, “gu” eta “herri” kon-
zeptuen esanahia zehazteko ekimen
aproposena izan daiteke. •

«Eman ta zabal zazu»

Miren Azkarate

Ez dakit zehazki duela zenbat aste
izan zen. Mugikorreko dei bat izan
nuen. Normalean ez dut hartzen
ezezaguna bada. Baina langabezian
zaudenean eta hamaika curriculum bidali
dituzunean eta erantzunen zain zaudene-
an, ba hartu egiten duzu. Beraz, norbaitek
timatu nahi banau edo ez badiot sekula te-
lefonoa hartu eta nirekin hitz egin nahi ba-
du, orain du momentu egokia!

Hartu eta inkesta baterako deia zen, kaka!
Eskegitzera nindoan edozein argudio jarrita
UPV-EHUri buruzko galdetegi bat zela esan
zidanean. Oso urruti ikusten nituen uniber-
tsitate urte haiek, baina, pentsatzen jarrita,
duela bi urte inguru bukatu nituen Kazeta-
ritza ikasketak, 2004/2005 ikasturtean hasi
eta 2013/14an amaitu. Eta ez irakasle batek
esan zidan moduan sei urtetan bizitzaz go-

zatu eta egin beharrekoak ez nituelako
egin, baizik eta denbora horretan espetxe-
an eduki nindutelako eta UPV-EHUn ezin
izan nintzelako matrikulatu.

Hortxe hasi zitzaidan ahots atsegina gal-
derak egiten. Ea burutu nituen ikasketak la-
na bilatzeko balio izan didaten, irakasleen
balorazioa egiteko 1etik 10erako eskala ba-
tean, ea irakasleak ez ziren langileen euska-
ra maila nolakoa zen, unibertsitateak es-
kaintzen zizkigun baliabideak egokiak ziren
ala ez, eraikina eta klaseak egoera onean
zeuden... Azkar erantzuten nion nik; ikaske-
tek ez didate lana izaten erraztu langabe-
zian nagoelako, irakasleen artean bi mutu-
rrak, 1ekoak eta 10ekoak, euskararen maila
negargarria zela, bi telebista kamera geni-
tuela 100 ikaslerentzat, irratia (horrela dei-
tzea asko iruditzen bazait ere) nik hiru hila-

beteko ikasgai batean zapaldu nuen eta
eraikina erori egiten zen literalki, pusketan!

15 minutu iraun zuen elkarrizketa atsegin
hark, emakumeak nirekin batera egiten
zuen barre, campusa ezagutzen zuen seina-
le. Azkenik zerbait gehitu nahi nuen esan
zidan eta hementxe amaitu ziren barreak.
Gehitu nuena aipatu dudana izan zen, eus-
kal preso politikoek ezin dugula gure herri-
ko unibertsitatean matrikulatu, ez dugula
ikasteko eskubiderik 2004. urtetik. Emaku-
meak ezin zuen sinetsi, ez zekien ezer horri
buruz. 13 urteren ondoren auzia ez da kon-
pondu, okerrera egin duela esango nuke,
eta oraindik bada euskal gizartean enteratu
ez denik... Eta oraindik jende gutxiagok daki
UPV-EHuko karpetak Palentziako espetxe-
an egin izan dituztela preso sozialek. Para-
doxa polita birgizarteratzearen izenean. •